

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespina ematea garai bateko "Aldaia" 5. sektoreko S5 RD 13.2 azpipartzelaren eta garai bateko "Ibaialde" 11. sektoreko S11 RD 24.3 azpipartzelaren artean erabilera xehatuak aldatzeko xehetasun-azterlanari (bi sektore horiek gaur egun A 13.1 eremuan)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Hasierako onespina ematea garai bateko Aldaia 5. sektoreko S5-RD 13.2 azpipartzelaren eta garai bateko Ibaialde 11. sektoreko S11-RD 24.3 azpipartzelaren arteko erabilera xehatuak aldatzeko xehetasun-azterketari (biak Vitoria-Gasteizko egungo A 13.1 eremuan). I. E. arkitektoak eta N. G. O. eta E. B. G. abokatuek idatzi dute azterketa hori, Creative Home SLren ekimenez. Hala ere, behin betiko onartu aurretik, dokumentazio berria aurkeztu beharko da paperean eta CD formatuan, 2026ko ekainaren 11ko txosten teknikoan adierazitako zuzenketekin.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua arabera, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea jaso ezean, eten egingo da behin betiko onesteko epea.

3. Dosierri jendaurrean jartzea, hogeit egunez, ALHAOn, udalaren iragarki-taulan eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, eragiten diela uste duten guztiek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten alegazioak eta oharak egin ahal izan ditzaten epe horretan.

Dosierri Vitoria-Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25—, adierazitako epean, ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 23an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA